

**2026ko uztailaren 29ko Derioko Udalaren alkatetzako 2025-0443 dekretua, atzerrian hizkuntzak ikasteko eta musika eta dantza ikasketak egiteko laguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia onartzen duena.**

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

Laguntza horietarako Ordenantzan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak bakarrik izan daitezke onuradunak.

Bigarrena. Helburua:

Deialdi honen helburua atzerriko hizkuntza-ikastaroetan eta musika- eta dantza-ikasketetan parte hartzeagatik sortutako gastuak diruz laguntzea da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko urriaren 16an argitaratutako oinarriak.

[https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao\\_bob/2020/10/16/II-3308\\_eus.pdf](https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/10/16/II-3308_eus.pdf)

Laugarrena. Zenbatekoa:

13.000 euro

Diru-laguntzaren zenbatekoa benetan justifikatutako gastuaren %50 izango da, gehienez ere 500 euro pertsonako, aurrekontu-partida bakoitzean esleitutako kredituaren mugaraino. Eskaera gehiegi egoteagatik aurrekontu-kreditua ez bada nahikoa %50 hori estaltzeko, onuradun bakoitzak benetan justifikatutako gastuaren ehuneko bera jasotzeko moduan banatuko da kreditu hori. Emandako diru-laguntzak kontabilizatu ondoren, dagokion aurrekontu-aplikazioan kreditu-soberakin bat salbuesten bada eta bestean hori nahikoa ez bada, eta kontuan hartuta bi aplikazioak lotura- poltsa beraren barruan daudela, soberakin hori erabili ahal izango da beste jarduera diruz laguntzeko, betiere esleitutako zenbatekoaren mugarekin.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko irailaren 1etik urriaren 10era artekoa

izango da.

Derion, 2026ko uztailaren 29a

Alkatea, Esther Apraiz